



GOBERNU BATZARRA

2025.06.03

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregui

Bertaratutako zinegotziak:
Cristina Pelaez Errazquin
Ander Figuerido Zubiria
Aitor Aguirresarobe Murgui

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hiruan, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte
Goiuri Eceiza Arandia

Udal idazkaria:
Sara Berasategui Fuertes

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

1. Onartzea Tolosako Udalaren eta Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen arteko hitzarmena sinatzea.
2. «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa. Aurkeztutako alegazioaren onespina eta behin betiko onespina.
3. Dekretu hauen berri ematea:
2025/1521 Dekretua: 2025/20 faktura zerrendak.
2025/1520 Dekretua: 2025/21 faktura zerrendak.
2025/982 Dekretua: 2025/23 faktura zerrendak.
2025/101 Dekretua: 2025/24 faktura zerrendak.
2024/1933 Dekretua: 2025/25 faktura zerrendak.
2025/1516 Dekretua: 2025/26 faktura zerrendak.
2025/1560 Dekretua: 2025/27 faktura zerrendak.

ESKU40aac0b8-22b5-4122-bdf2-fd78fcc47f1b



1. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA HERRIKIDE-ESKOLAPIOAK IKASTETXEAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Hezkuntza Politika Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko maiatzaren 27an, probidentzia bat eman zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Herrikide-Eskolapioak ikastetxearekin hitzarmena egiteko, eskolako patioa asteburuetan irekitzeko.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko maiatzaren 27an egindako txostenean, hitzarmena sinatzea proposatu zuela. Gogora ekarri zuen Udalak badituela gai horrekin lotutako eskumenak, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan finkatuak: «10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea»; «19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea»; eta «36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea». Era berean, nabarmendu zuen badela eskaera herrian: Nerabeen Foroak 2024ko maiatzaren 14an aurkeztutako hamazazpi proposamenetako bat da —«Nerabeentzako toki estaliak erdigunean, eguraldi txarra egiten duenerako»—, eta Tolosako Herritarren Batzarraren K gomendioa ere lotuta dago horrekin —«13-18 urteko gazteek ez dute sarbide publikoko espazio estalirik inoren tutoretzapean egon gabe egon eta sozializatzeko (batez ere neguan)»—. Tolosako Hezkuntza Mahaian landutako proposamenetako bat ere izan zen jolastokiak zabaltzea.

BIGARRENA.- Txosten juridikoa egin duela Idazkaritza Saileko teknikariak 2025eko maiatzaren 29an, eta proposamenaren aldeko iritzia eman duela, betiere hitzarmen-proposameneko bederatzigarren artikulua aldatzeko baldintzarekin.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Saileko teknikariak, 2025eko maiatzaren 29an, hitzarmena sinatzearen aldeko txostena egin zuela.

LAUGARRENA.- Hitzarmena egiteko eskumena Alkatearena dela, kontuan hartuta zer zehazten duen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluan. Hala ere, Tolosako alkateak, 2023ko uztailaren 3an, 2023/1707 Alkatetza Dekretuaren bidez, erabaki zuen zenbait ahalmen Tokiko Gobernu Batzarrari



eskuordetzea, eta tartean da hitzarmenak onestea, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpokoak badira. Beraz, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio ebaztea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen arteko hitzarmena sinatzea. Honako eduki hau du hitzarmenak:

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA HERRIKIDE-ESKOLAPIOAK IKASTETXEAREN ARTEKOA

Tolosan, azken sinadura digitalean ageri den datan

ELKARTURIK

Alde batetik, Aitor Aguirresarobe Murgui, Tolosako Udaleko Hezkuntza Politika Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Eta bestetik, Gartxot Aguirre Zabala (NAN: 4146236-J), Herrikide-Eskolapioak ikastetxeko zuzendaria (IFK: R2000408A).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen izenean, Julio Boned Juliani notarioaren aurrean egindako ahalordetzaren bidez baimenduta.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna, eta ondorio horretarako



AZALTZEN DUTE

- I. 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25.1. artikuluan honako hau ezartzen duela: «Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake».
- II. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan finkatzen dituela toki-erakundeen eskumenak, eta tartean daudela osasun publikoa sustatzea (17.1.10), kirola sustatzea (17.1.19) eta gazteria-politikak antolatzea (17.1.36).
- III. Tolosako Udalak interesa daukala udalerrian dauden askotariko instalazioak herritarren eskura jartzeko, kirol-jarduerak eta aisialdikoak egiteko, batez ere umeak eta gazteak gogoan hartuta. Herritarren ohiko eskaera da azpiegitura horiek erabili ahal izatea, eta bat dator Udalak kirol-osasuna sustatzeko eta herri bizigarria egiteko duen helburuarekin.
- IV. Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen azpiegiturak baliagarriak direla Tolosako Udalak herritarrei jolastokiak irekitzeko duen helbururako.
- V. Herrikide-Eskolapioak ikastetxeak, Tolosarekin duen erantzukizun soziala kontuan hartuta, bat egiten duela Udalak kirol-osasuna sustatzeko eta herri bizigarria egiteko daukan helburuarekin.

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute bi aldeek, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

Lehen. Xedea.

Hitzarmen honen helburua da lankidetzako eremu bat ezartzea Tolosako Udalaren eta Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen artean, jolastoki-azpiegitura batzuk herritarrentzat erabilgarri jartze aldera.

Bigarrena. Jabetza eta lagatzea.

Ikastetxearen jabetzakoa da erabili nahi den azpiegitura. Itun honen helburua da eremu horretako kanpo-patioa herritarrei irekitzea, zehaztutako ordutegi eta baldintzetan.



Hirugarrena. Egutegia eta ordutegia.

Ikastetxeko patioa larunbatetan eta igandeetan erabili ahal izango da, uztailean eta abuztuan izan ezik, ordutegi honetan: ekainetik urrira, biak barne, 10:00etatik 20:00etara; azarotik martxora, biak barne, 10:00etatik 19:00etara.

Erabilera eskola-ordutegitik kanpokoak izango da betiere. Era berean, azpiegiturak ezingo dira erabili eskola-kiroleko jarduerak edo ikastetxearen bestelako ekintzak egiten ari direnean.

Laugarrena. Irekitzea eta ixtea.

Tolosako Udaltzaingoa arduratuko da dagokion ordutegian ikastetxeko kanpoko atea irekitzeaz eta ixteaz.

Bosgarrena. Garbiketa eta mantentzea.

Herrikide-Eskolapioak ikastetxea arduratuko da patioa eta kirol-eremua garbitzeaz eta mantentzeaz.

Seigarrena. Aseguruak.

Herrikide-Eskolapioak ikastetxeak egingo ditu dagozkion aseguruak.

Zazpigarrena. Tolosako Udalaren konpromisoak.

Lankidetzat-hitzarmen honen arabera, konpromiso hauek hartzen ditu Tolosako Udalak:

- Udaltzaingoa bidez atea irekitzea eta ixtea, eta aldian aldiko zaintza-lanak egitea.*
- Herriarrei informazioa ematea, azpiegitura horiek egoki erabiltzeko helburuz.*
- Herrikide-Eskolapioak ikastetxeko hileko 400 euroko ekarpena egitea. Ordainketa egiteko, dagokion faktura helarazi beharko du, bi epetan: 2025eko ekainean, ekainari dagokion zatia, eta 2025eko abenduan, irailetik abendura arteko faktura.*

Zortzigarrena. Hirugarrenei uztea.

Udalak inolaz ere ezin dizkie utzi hirugarrenei hitzarmen honen xede diren azpiegiturak.

Bederatzigarrena. Klausulak ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio betetzen ez duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori hitzarmenaren betearazpenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi dagoela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Arrazoi horregatik hitzarmena suntsiarazten bada, eragindako kalteen kalte-ordaina eman ahal izango da, hala aurrekusi bada.



Hamargarrena. Iraupena.

Hitzarmen hau indarrean jarriko da bi alderdiek formalizatzen duten unean, eta indarrean egongo da 2025eko abenduaren 31ra arte.

Hamaikagarrena. Jarraipen-batzordea.

Hitzarmen hau egoki betetzen dela bermatzeko eta balizko gorabeherak kudeatzeko, jarraipen-batzorde bat osatuko dute bi aldeek. Honako hauek osatuko dute jarraipen-batzorde hori: Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburu Garikoitz Goikoetxea Etxeberriak eta Herrikide-Eskolapioak ikastetxeko ordezkari Gartxot Aguirre Zabalak.

Hamabigarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan ezartzen dituen kasuetan.

Hamahirugarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, beraz, bere klausulek arautzen dute, eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak.

Hamalauagarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, lege-arau hauetan xedatutakoa beteko da:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak.

Hamabosgarrena. Gardentasun-ataria.

Hitzarmen honen testua argitaratuko da Tolosako Udalaren gardentasun-atarian.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute bi aldeek, nire aurrean, sinaduran ageri den egunean, eta nik, idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA
Aitor Aguirresarobe Murgui

HERRIKIDE-ESKOLAPIOAK
IKASTETXEKO ORDEZKARIA
Gartxot Aguirre Zabala

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

BIGARRENA.- Hitzarmenaren testua argitaratzea Tolosako Udalaren gardentasun-atarian eta udaletxeko iragarki-taulan, bat etorrita 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin.



HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Euskara eta Hezkuntza Sailari, eta Kontu-hartzailetza Sailari.

2. «20 AMAROTZ» ESPARRUKO «20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA» AZPIES-PARRUKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN LEHEN ALDAKETA. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAREN ONESPENA ETA BEHIN BETIKO ONESPENA.

IKUSIRIK

Dokumentua	Data/Sarrera-Irteera Zk.	Oharrak
VISESak aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketa, hasierako onespenerako	2024/11/27 (2024-14889)	
VISESak aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketari lotutako dokumentazio osagarria	2025/01/03 (2025-274/276)	Jabetza Erregistroko ziurtagiriak eta planoak
Araudi SL enpresak, Nekane Azarola Martinez abokatuak ordezkaturak, birpartzelazio-proiektuaren aldaketari buruzko txosten juridikoa	2025/01/22 (2024-1039)	Tolosako Udalak hala eskaturik
Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU25008)	2025/01/23	Hasierako ematearen onespena baldintzapean aldekoa,
Udaleko idazkari akzidentalaren ziurtagiria, TGBk hartutako erabakiaz	2025/01/29	Hasierako ematearen onespena baldintzapean erabakia,
VISESari TGBk hartutako erabakiaren jakinarazpena	2025/01/31 (2025-328)	Hasierako ematearen onespena baldintzapean erabakia,
Iragarkiaren argitalpena:		
- GAOn	2025/02/17 (31 zk.)	
- Udaletxeko taulan	2025/02/17- 2025/03/17	
- Udaleko web orrian	2025/02/18	Informazio publikoaren amaiera: 2025/02/20
- Aldizkarietan:		
Berria eta Tolosaldeko	202/02/19	
Ataria	2025/02/20	
El Diario Vasco		
VISESak aurkeztutako alegazioa	2025/02/21 (2025-2668)	

ESKU40aac0b8-22b5-4122-bdf2-fd78fcc47f1b



Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU250026)	2025/03/26	Jendaurrekoari buruzkoa
Idazkari akzidentalaren ziurtagiria	2025/03/26	Jendaurrekoari buruzkoa
VISESak aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketa, behin betiko onespenerako	2025/04/15 (2025-5241)	
Araudi SL enpresak, Nekane Azarola Martinez abokatuak ordezkatura, birpartzelazio-proiektuaren aldaketari buruzko txosten juridikoa	2025/05/26 (2025-7336)	Tolosako eskaturik Udalak hala

Dokumentua	Data/Sarrera-Irteera Zk.	Oharrak
VISESak aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketa, hasierako onespenerako	2024/11/27 (2024-14889)	
VISESak aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketari lotutako dokumentazio osagarria	2025/01/03 (2025-274/276)	Jabetza Erregistroko ziurtagiriak eta planoak
Araudi SL enpresak, Nekane Azarola Martinez abokatuak ordezkatura, birpartzelazio-proiektuaren aldaketari buruzko txosten juridikoa	2025/01/22 (2024-1039)	Tolosako eskaturik Udalak hala
Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU25008)	2025/01/23	Hasierako ematearen onspena baldintzapean aldekoa,
Udaleko idazkari akzidentalaren ziurtagiria, TGBk hartutako erabakiaz	2025/01/29	Hasierako ematearen onspena baldintzapean erabakia,
VISESari TGBk hartutako erabakiaren jakinarazpena	2025/01/31 (2025-328)	Hasierako ematearen onspena baldintzapean erabakia,
Iragarkiaren argitalpena:		
- GAOn	2025/02/17 (31 zk.)	
- Udaletxeko taulan	2025/02/17- 2025/03/17	
- Udaleko web orrian	2025/02/18	Informazio publikoaren amaiera: 2025/02/20
- Aldizkarietan:		
Berria eta Tolosaldeko Ataria	2025/02/19	
El Diario Vasco	2025/02/20	
VISESak aurkeztutako alegazioa	2025/02/21 (2025-2668)	
Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU250026)	2025/03/26	Jendaurrekoari buruzkoa
Idazkari akzidentalaren ziurtagiria	2025/03/26	Jendaurrekoari buruzkoa



VICESAk aurkeztutako 2025/04/15 (2025-5241)
birpartzelazio-proiektuaren aldaketa,
behin betiko onespenerako

Araudi SL enpresak, Nekane 2025/05/26 (2025-7336) Tolosako Udalak hala
Azarola Martinez abokatuak eskaturik
ordezkatuta, birpartzelazio-
proiektuaren aldaketari buruzko
txosten juridikoa

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

A) Estatuko legeria:

- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30ekoa 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 4.2, 5.d eta e, 7, 13.2.c eta 14.c, 18, 25 eta V. Titulua (34-41 artk.).
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j), 70.ter1 eta 127.1.d) artikulua.
- Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko den uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuko 6. artikulutik 20. artikulura.
- *Ordezko gisa:*
 - Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 97. artikulutik 102. artikulura.
 - Hirigintza kudeaketaren erregelamenduko (azaroaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua) 172. artikulutik 174. artikulura.
- Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretua.

B) Euskal Autonomia Erkidegoko legeria:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikulutik 49. artikulura eta 163. artikulua.

HIRUGARRENA.- 2024H1180002 espedientearekin erlazionatutako espedienteak:

- 2021H1050001 eta 2021H1300001 espedienteak: «20 Amartz» esparruko «20.1 Amartz Paper-Fabrika» azpiesparruko Hiri Antolamenduko Pan Bereziaren bigarren aldaketa eta honi lotutako ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoa. (Udalbatza, 2024/10/31, behin betiko onespena).



- 2021IHTP0015 eta 2024IHTP0009 espedienteak: Tolosako HAPOko "20.1. Amarotz paper-fabrika" Hirigintza azpieremuko 2.1 eta 2.2 lursailetan bizitegi errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean babes publikoko etxebizitzaren sustapena ahalbidetzeko, "Vivienda de Suelo de Euskadi S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA" sozietatearekin lankidetzat hitzarmenak. (Udalbatza, 2022/02/23 eta 2024/10/31, behin betiko onepenak).
- 2024H1130001 espedientea: «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko Urbanizatze Jarduketa Programaren legen aldaketa. (TGB, 2024/11/19, behin betiko onepena).
- 2024H1140001 espedientea: «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko Urbanizatze Jarduketa Programa egikaritzeko Hirigintza-hitzarmena. (TGB, 2025/03/27).
- 2024H1310010 espedientea: Babes Akustiko Bereziko Eremuaren deklarazioa eta eremuko Plan Akustikoa «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruan.
- 2024H3160002 eta 2024H316003 espedienteak: «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruan, 2.1 eta 2.2 partzeletan, babes ofizialeko 111 eta 81 etxebizitza eraikitze obra lizentziak.
- 2025H3010003 espedientea: Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailean hasitako lurzoruen kalitatearen adierazpenaren prozedura. (Eusko Jaurlaritzako aldeko ebazpena eskabazio-lanak egiteko, 2025/03/24).

LAUGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia:

«**LEHENA.** - HASIERAKO ONESPENA EMAN DAITEKE Tolosako Udalean, 2024ko azaroaren 27an (2024-14889 erregistro zk.) eta 2025eko urtarrilaren 3an zein 8an (2024-74 eta 276 sarrera zenbakiak) Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (VISESA), Carlos Quindos Fernandezek ordezkatuta, aurkeztutako «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren aldaketari, baina behin betiko onepenerako honako zuzenketa hauek aurkezteko BALDINTZAPEAN:

1. Birpartzelazio-proiektuaren memoria eta planoak koordinatzea. Birpartzelazio-proiektuaren planoetan, jatorrizko eta ondoriozko partzela guztiak eta horien azalerak jaso beharko dira.
2. Ondoriozko lursailetan, jatorrizko lurzatiekin duten lotura ("correspondencia") adierazi beharko da.
3. P.01. ondoriozko partzelaren hirigintza-kargan antzemandako akatsa zuzentzea, 742.200,86 € kopuruaren ordezkari 784.781,77 € jarri behar baita.
4. Ondoriozko P-2.1 eta P 2.2 lurzatietan mugak zuzendu eta osatzea. Lagapen-partzelen deskribapena berrikusi egin beharko da lurzati horiek birpartzelazio-proiektuaren planoetan islatzen direnean, eta berariaz deskribatu beharko dira P-1, P 2-1 eta P 2-2 ondoriozko partzelen inguruan kokatutako lagapen-lurzoruen.



BIGARRENA.- Birpartzelazio-proiektuaren aldaketa jendaurrean jarri behar da hilabetez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Atarian eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarritz.

Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren web gunean [<https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>].

Jendaurreko erakustaldian, espedienteaz aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, bidezko alegazioak aurkez daitezzen.

HIRUGARRENA.- Erabakia jakinarazi behar zaio Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EARI (VISESA).»

BOSGARRENA.- «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespeneraren ondotik aurkeztu den alegazioak honakoa jasotzen duela:

«**Primero.-** Que, con fecha 28 de enero del presente, la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa ha aprobado inicialmente la modificación del Proyecto de Reparcelación del subámbito urbanístico “20.1 Papelera Amarotz”.

Este documento ha sido elaborado y presentado en el Ayuntamiento de Tolosa por parte de VISESA, como propietaria privada única de dicho subámbito.

En dicho documento se fijó el gravamen urbanístico en la cantidad de 1.609.039,26 €, cantidad que corresponde a la suma del gasto de urbanización que corresponde a la urbanización complementaria de las nuevas parcelas, así como al gasto correspondiente de urbanización que corresponde a la zona sur sin urbanizar (Fase 2).

Segundo.- Que, con fecha 19 de noviembre de 2024, fue aprobada de forma definitiva la 1ª modificación del Programa de Actuación Urbanizadora (PAU) del subámbito urbanístico “20.1 Papelera Amarotz”, publicado en el BOG con fecha 2 de diciembre de 2024.

En el mismo se fija como presupuesto de ejecución material (PEM) de la obra de urbanización y, por lo tanto, como carga de urbanización la cantidad de 1.007.074,52 € (1.198.418,67€, presupuesto de ejecución por contrata PEC), cantidad que corresponde a la urbanización de la zona sur que se encuentra sin urbanizar (Fase 2), dejando los gastos de urbanización complementaria a cada fase o etapa que se definirán en los proyectos de edificación correspondientes.

Tercero.- Que, debido a la cuantificación determinada como carga de urbanización en el documento de aprobación definitiva del PAU, es necesario cambiar o modificar el importe del gravamen urbanístico o carga de urbanización establecido en el documento de aprobación inicial de la modificación del Proyecto de Reparcelación, estableciéndose el mismo en la cantidad de 1.007.074,52 € PEM (1.198.418,67 € PEC).

Cuarto.- Que la aprobación inicial de la modificación del Proyecto de Reparcelación ha sido publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG), con fecha 17 de febrero del presente, estableciéndose un período de un mes de exposición pública, pudiendo presentar en este plazo las alegaciones oportunas.

Por todo ello y, a fin de subsanar la cuantía de la carga de urbanización o gravamen urbanístico reflejado en el documento de aprobación inicial de la modificación del Proyecto de Reparcelación del subámbito urbanístico “20.1 Papelera Amarotz” se alega y/o

SOLICITA

La modificación de la cuantía de la carga de urbanización o gravamen urbanístico reflejado en el documento de aprobación inicial de la modificación del Proyecto de Reparcelación del subámbito “20.1 Papelera-Amarotz”, de tal forma que la cantidad como carga de urbanización o gravamen urbanístico reflejada en el documento de aprobación definitiva de la modificación del Proyecto de Reparcelación del subámbito urbanístico “20.1 Papelera Amarotz”, sea la cantidad de UN MILLÓN SIETE MIL SETENTA Y CUATRO EUROS Y CINCUENTA Y DOS CÉNTIMOS DE EURO (1.007.074,52€)PEM (1.198.418,67 PEC), acorde con lo establecido en la aprobación definitiva de la 1ª modificación del PAU.»



SEIGARRENA.- Tolosako Udalak hala eskatuta, 2025eko maiatzaren 26ean aurkeztutako, Nekane Azarola Martinez abokatuaren **TXOSTEN JURIDIKOAN JASOTAKO AZTERKETA JURIDIKOA:**

« (...)

II.- AZTERKETA JURIDIKOA

II.1.- EGINDAKO ALEGAZIOAREN AZTERKETA

Egindako alegazioan adierazten denez, hasieran onetsitako Birpartzelazio Proiektuan hirigintza-karga gisa ezarritako zenbatekoa 1.609.039,26 €da. Zenbateko hori lurzati berrien urbanizazio osagarriari eta urbanizatu gabeko eremuaren urbanizazioari (2. fasea) dagokie.

Aldiz, 1.007.074,52 €-ko zenbatekoa da **(1.198.418,67 € kontrata egikaritzeko aurrekontua)**, urbanizatu gabe dagoen eremua urbanizatzeko obrei dagokiena (2. fasea). Zenbateko hori 2024ko azaroaren 19an onartutako UJPren 1. aldaketan ezarritakoa da.

Hain zuzen ere, 2024ko azaroaren 19an behin betiko onartutako UJPan, 4. atalean («*Eduki tekniko-urbanistikoa*»), gauzatze materialaren aurrekontua 1.007.074,52 eurokoa da, eta kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua 1.198.418,67 eurokoa.

Beraz, egindako alegazioa ontzat hartzen da, eta, Birpartzelazio Proiektuan **1.198.418,67 €**ko kopurua ezarri behar da hirigintza-karga gisa.

II.2.- HASIERAKO ONESPENAREN ERABAKIAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA

2025eko urtarrilaren 28an, Tokiko Gobernu Batzarrak hasieraz onetsi zuen birpartzelazio-proiektua, behin betiko onespene-agirirako honako alderdi hauek zuzentzearen baldintzapean:

- 1.- Birpartzelazio Proiektuaren memoria eta planoak koordinatzea. Birpartzelatze-proiektuaren planoetan, jatorrizko eta ondoriozko partzela guztiak eta horien azalerak jaso beharko dira.
- 2.- ondoriozko lursailetan, jatorrizko lurzatiekin duten lotura adierazi beharko da.
- 3.- P.01. ondoriozko partzelaren hirigintza-kargan antzemandako akatsa zuzentzea.
- 4.- Ondoriozko P-2.1 eta P 2.2 lurzatieetan mugak zuzendu eta osatzea. Lagapen-partzelen deskribapena berrikusi egin beharko da lurzati horiek birpartzelazio-proiektuaren planoetan islatzen direnean, eta berariaz deskribatu beharko dira P-1, P 2-1 eta P 2-2 ondoriozko partzelen inguruan kokatutako lagapen-lurzoruak.

Aurkeztutako dokumentua aztertuta, eskatutakoa honela bete da:

1. Memorian jatorrizko eta ondoriozko lursailen egiten den deskribapena kartografian islatzen da.
Beraz, aldaketak 23.013 m²-ko azalerari eragingo dio. Jatorrizko lursailak, gaur egun jabetza-erregistroan inskribatuta daudenak, P.03 planoan jasota daude, eta guztira 23.013 m² dute; eta ondoriozkoak – P.04 planoan jasota daude – eta azalera bera batzen dute.
- 2- Emaizazko partzelen deskribapenean, jatorrizko partzelekin duten lotura dioen atala sartu da. Egindako korrespondentziak eta ezarritako ehunekoak zuzenak dira.
- 3- P.01 ondoriozko lursailaren hirigintza-kargan antzemandako akatsa zuzendu da, eta 784.781,77 €-ko zenbatekoa behar bezala jasoz.
- 4- Lagapen-partzelen deskribapenari dagokionez, tokiko bide-sistema eta espazio librearen sistema deskribatzen dira beren mugekin.
P-1 eta P-2.1 eta P-2.1 eta P-2.2 lurzati eraikigarrien artean sortzen diren espazio libreak berariaz deskribatzen dira, hasierako onspene-akordioan eskatzen zen bezala.
- 5- Agirian jasotzen den hirigintza-karga UJParen lehen aldaketan onartutakoa da, 1.198.418,67 €-koa. Zenbateko hori ere alegazioaren xede izan da, eta onartzea proposatzen da.



P-1 lurzatiak % 65,48ko karga-ehunekoa du, eta 784.781,77 €ordaindu behar ditu.
P-2.1 lursailari % 19,48 dagokio, eta 233.393,74 €ordaindu behar ditu.
Azkenik, 2-2 lurzatiari % 15,04 dagokio, eta 180.243,16 €-ko zenbatekoa ordaintzea.
Kargaren ehunekoa eta zenbatekoa zuzenak dira.

Gainerako alderdiei aldeko txostena eman zitzaizen dokumentuaren hasierako onespenerako.
Azaldutako guztiagatik, eta kontuan hartuta alegazioaren xede den hirigintza-kargaren zenbatekoa jada jasota dagoela aurkeztutako dokumentuan, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Tolosako "20.1 *Amarotz paper-fabrika*" azpiesparruaren birpartzelazio-proiektuaren aldaketa behin betiko onesteko dokumentuari, eta erabaki hau hartzea proposatzen da:

Lehena.- Carlos Quindosek, VISESAren izenean eta haren ordezkari gisa, "20.1 *Amarotz paper-fabrika*" azpiesparruaren birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren hasierako onespeneraren erabakiari egindako alegazioa **ONARTZEA**.

Bigarrena.- 2025eko apirilaren 14ko "20.1 *Amarotz Paper-fabrika*" azpiesparruaren birpartzelazio-proiektuaren aldaketa **behin betiko onartzea**.

Hirugarrena.- Erabakia VISESAri **jakinaraztea** eta GAO n eta Udalaren webgunean **argitaratzea**.»

ZAZPIGARRENA.- Adierazitako alegazioan jasotakoa eta, bat eginik aholkulari juridikoak egindako azterketa juridikoarekin, txosten hau izenpetzen duenak egiten duen **AZTERKETA JURIDIKOA**:

Baietsi daiteke 2025eko otsailaren 21ean Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAK (VISESA), bere legezko ordezkariak ordezkatzuta, aurkeztutako alegazioan adierazitakoa, hau da, birpartzelazio-proiektuaren hasierako onespenerako dokumentuan jasotako urbanizazio-kargaren edo hirigintza-kargaren zenbatekoa zuzentzea. Izan ere, islatu zen kopurua (1.609.039,26 €) ez baitzeturten bat Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 19an behin betikoz onartutako Urbanizatzeko Jarduketa Programaren lehen aldaketan jasotakoarekin (urbanizazio-aurrekontua, 2. fasearena: 1.007.074,52 €).

Bestalde, 2025ko apirilaren 15ean, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAK (VISESA), bere legezko ordezkariak ordezkatzuta, behin betiko onespenerako aurkeztutako «20 *Amarotz*» esparruko «20.1 *Amarotz Paper-Fabrika*» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren edukia aztertuta, ondorioztatzen dut hasierako onespeneran ezarritako baldintzak bete eta, beraz, birpartzelazio-proiektua egokitu zein zuzendu dela hasierako onespeneran jasotakora. Ondorioz, ez dago eragozpenik behin betikoz onartzeko.

ZORTZIGARRENA.- «20 *Amarotz*» esparruko «20.1 *Amarotz Paper-Fabrika*» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa behin betikoz onesteko eskumena Alkateari dagokiola, hirigintza-kudeaketako egintza den heinean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaioela 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokiola behin betiko onespenera ematea.



Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- ONARTZEA, 2025eko otsailaren 21ean (sarrera zk. 2025-2668 zk.), Carlos Quindós Fernández zuzendari orokorrak, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (VISESA) ordezkatzuz, AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA, «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketako hasierako onespenera dagokionez, azterketa juridikoan adierazitako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren «20 Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko jabe bakarreko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketako testu bateginari; 2025eko apirilaren 15ean, erregistro zk. 2025-5241, aurkeztutako dokumentuekin bat, Carlos Quindós Fernández zuzendari orokorrak, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (VISESA) ordezkatzuz, aurkeztuta eta Maria Cristina Llamas Escribano arkitektoak zein Nerea Molina Gaueca eta Jon Arrieta Pérez de Arenaza letratu eta tekniko juridikoak idatzia.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onspen erabakia hau, hasierako onspena argitaratu zen eran argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAri (VISESA) jakinaraztea eta berri ematea udaleko Kontu-Hartzailetza eta Diruzaintza sailari.

BOSGARRENA.- Behin administrazio bidean irmoa denean, birpartzelazio-proiektua formalizatzea [interesdunaren kargurako eskritura publikoaren bidez edo abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduaren 113.1 artikuluan xedatutako solemnitateak eta baldintzak biltzen dituen administrazio-dokumentuaren bidez] eta, behin formalizatu ondoren, Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatzea.

SEIGARRENA.- Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundian Hirigintzako eskumena duen Departamenduari zein Ogasun eta Finantza Departamenduari jakinaraztea.



3. **DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

2025/1521 Dekretua: 2025/20 faktura zerrendak.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu lege eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

20. zenbaki duena, 163.452,41 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

20. zenbaki duena, 163.452,41eurokoa.



BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztu, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Udal idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKU40aac0b8-22b5-4122-bdf2-fd78fcc47f1b

2025/1520 Dekretua: 2025/21 faktura zerrendak.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

21. zenbaki duena, 3.611,65 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

21. zenbaki duena, 3.611,65 eurokoa.



BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztu, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Udal idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKU40aac0b8-22b5-4122-bdf2-fd78fcc47f1b



2025/982 Dekretua: 2025/23 faktura zerrendak.

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

LEHENA.- KILI-KOLOK S.COOP-ek faktura hauek aurkeztu dizkio Tolosako Udalari:

Faktura Zk.	Zenbatekoa
2025/003	8.355,91 €
2025/015	10.027,05 €
2025/025	10.027,05 €

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Tolosako Udalak 2021ko urtarrilaren 7ko datarekin esleitu zion nerabeentzako gazte topagune zerbitzua Kili-Kolo S. COOP-i.

Esleipeneko prozesu horretan aurreikusia zegoen kontratu horren iraupena bi urtekoa izatea, eta, gainera, luzapen bat proposatzen zituen, guztira lau urteko iraupenarekin. Zerbitzu kontratu hori 2021eko urtarrilaren 7an jarri zen indarrean, eta 2025ko urtarrilaren 6an iraungi.

BIGARRENA.- 2024ko irailaren 24an eman zitzaion hasiera Topagune zerbitzua kudeatzeko 2024SABI0008 espedienteari, Alkate probidentzia irailaren 24an sinatu zuen alkateak eta teknikari honek txostena egin zuen topagune zerbitzua kudeatzeko kontratu publikoa esleitzeko prozedura berria abiarazteko proposamenarekin.

HIRUGARRENA.- KILI KOLO S. COOP enpresak Tolosako Udalerrian gazte topagunea kudeatzeko zerbitzu-kontratua ematen ari da 2024SABI0008 espedientea garatzen ari den epealdian. Jaso den informazioaren arabera, bertan aurreikusitako zerbitzua bere horretan ematen ari da eta era berean, hezitzaile-dinamizatzaile lan-talde osoak jarraitzen du bere jardunean, eta enpresa bere obligazio guztiak betetzen ari da.



LAUGARRENA.- Egiaztatu da faktura hauek egiterakoan enpresak erabilitako irizpide ekonomikoa zerbitzu-kontratua indarrean zegoen epealdirako ezarritako berbera izan dela; hau da, zerbitzu-kontratuaren indarraldirako adostutako orduko/ prezio berbera fakturatu dute hiru hilabeteetan emandako zerbitzuaren ordainketa eskatzerakoan.

BOSTGARRENA.- 202400088 SABI espediente bidez kudeatzen ari den zerbitzu kontratua esleitu bitartean modalitate honetan eskainiko du KILI KOLO S. COOPEK. topagune zerbitzuaren gestioa.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- - KILI- KOLO S.COOP-i, aurkeztutako hiru faktura hauek onartzea eta ordaintzea:

Faktura Zk.	Zenbatekoa
2025/003	8.355,91 €
2025/015	10.027,05 €
2025/025	10.027,05 €

BIGARRENA.- Modalitate honetan emandako zerbitzuari dagozkion gainerako fakturak ere onartzea eta ordaintzea, baldin eta baldintza berak mantentzen badira fakturretan, beti ere kontratu publiko berria esleitu eta indarrean sartzen den dataren aurreko egunera arteko epealdiari badagokio.

HIRUGARRENA.- Interesatua eta Kontuhartzailetza Saila jakinaraztea.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.



Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordeztu, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Alkateordeak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKU40aac0b8-22b5-4122-bdf2-fd78fcc47f1b



2025/101 Dekretua: 2025/24 faktura zerrendak

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

LEHENA.- NURA GIZARTE ELKARTEAK, G20779187, faktura hauek aurkeztu dizkio Tolosako Udalari Liburutegian laguntzaileen zerbitzuak egiteagatik:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
106	2024/12/27	2.828,38 €	abenduak 12/31 bitartekoak
107	2024/12/27	257,13 €	abenduak 26 eta 27ko lanak

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Tolosako Udalak 2022ko abenduaren 12an sinatu zuen «udal-liburutegian liburutegi-laguntzaile zerbitzuak emateko» hitzarmena Eusko Eki SL enpresarekin. Honen bidez, Tolosako Udalaren Kultura, Gazteria eta Festak Sailaren eskumeneko arreta zerbitzua modu eraginkorrean kudeatzeko.

Esleipeneko prozesu horretan aurreikusia zegoen kontratu horren iraupena bi urtekoa izatea. Beraz, zerbitzu kontratu hori 2022ko abenduaren 12an jarri zen indarrean 2024ko abenduaren 11ra arte.

BIGARRENA.- Kontratu hori 2024ko abenduaren 12an iraungi zen, kontratuaren luzapenik erabaki gabe.

HIRUGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 7ko datarekin abiarazi zen 2025SABI0001 espedientea, Tolosako Udalak Liburutegiko laguntzaileak zerbitzuaren kontratua esleitzeko prozedura irekia.

LAUGARRENA.- 2025eko urtarrilaren 9an Kontu Hartzaileak fakturak ordaintzeari buruzko espediente honi hasera eman zion omisio txosten batekin, eta bere bosgarren puntuan honakoa dio:

Bostgarrena.- 32/2018 Foru Dekretuaren 28.2 artikulua aipatzen dituen alderdiei dagokienez:

a) *Gastuaren deskribapen zehatza*

Ondorengo taulan xehetasunez deskribatzen da egindako gastua:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
106	2024/12/27	2.828,38 €	Tolosako Liburutegian abenduaren 12tik 31ra laguntzaileen zerbitzuagatik.
107	2024/12/27	257,13	Tolosako Liburutegian abenduaren 26 eta 27 egunetan laguntzaileen zerbitzuagatik .

b) *Arauk ez betetzearen azalpena*

Kontuhartzailletza honen iritziz, lehen identifikatutako gastuak txosten honen lehen jakinarazpenean eta eranskinean adierazten diren akatsak ditu.

c) *Prestazioak egin direla eta prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela egiaztatzea*
Saileko arduradunak txosten bat egin beharko du, egiaztatuz, prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela.

d) *Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela Gastuaren zenbatekoa ordaintzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa dago 0800.227.04.332.10 2024 aurrekontu partidan (RCT-5482/2024).*

e) *Egintzak berrikusteko aukera eta komenigarritasuna*

Ordenamendua urratuz emandako egintzak berrikusteko aukerari eta komenigarritasunari dagokionez, aurreko c) puntuan aipatutako organo kudeatzaileak egiten duen txostenaren arabera izango da.

Saileko arduradunak adierazten badu dagozkion prestazioak egin direla eta merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola, kontuan hartu beharko da kalte-ordainaren zenbatekoa bat datorrela fakturaren edo gastuaren zenbatekoarekin eta, beraz, ez dela beharrezkoa egintza berrikusteko eskatzea.

Eta Zazpigarrenean gehitzen du:

Zazpigarrena.- Aurrekoari kalterik egin gabe, udalaren alde bidegabeko aberastea gertatu bada, eta sailaren arduradunak egiaztatzen badu prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela, egindako prestazioak EUSKO EKI S.L. enpresari ordaindu behar zaizkiola uste dut, kredituaren judizioz kanpoko aitortpen bat izapidetuz. Kreditu egokia eta nahikoa dagoenez, honen eskumena Alkatearena da.

2025ko urtarrilaren 13an Kultura, Gazteria eta Festak saileko zerbitzuburuak txostena egin zuen honakoa adieraziz:



Tolosako udal liburutegiak behar beharrezkoa du laguntzaile-zerbitzua kontratatzea pertsonal baliabide propjoak osatzen ez dituen bitartean.

- Hitzarmen berria sortu arte kontratu txikien bidez zerbitzua osatzeko abendurako aurrekontua eskatu zitzaion Eusko Eki enpresari. Honek abendurako 3.324 euroko aurrekontua aurkeztu zuen.

- Eskainitako aurrekonturen prezioa merkatukoekin bat dator, aurreko hitzarmenean sinatutakoen berdinak baitira.

- Hitzarmena sinatzen ez den bitartean ez da beste modurik izango kontratu txikiena baino. Beraz, hurrengo bi hilabeteetan, gutxienez, honetara jo beharko da berriz.

- Dagoeneko abenduko zerbitzuak emanda daude.

- Hurrengo hilabeteetan egoera berean jarraitzeko posibilitate handiak daude, beraz, berriro ere kontratu txikiekin jokatu beharko da.

BOSGARRENA.- Kontu-hartzailearen txostenak xedatzen duenez, organo kudeatzaileak prestazioak merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola adierazten badu, ez da beharrezkoa egintza berrikusteko eskatzea, eta nahikoa izango da Alkatetzak fakturen zenbatekoari dagokion kalte-ordaina emateari buruz ebaztea.

Faktura ordaindu ezean, Administrazioa bidegabeki aberastuko litzateke.

Kontuan hartu da apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuak, tokiko sektore publikoko erakundeetako barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenak, 28.2 artikuluan alkateari esleitzen diola bidezko ebazpena emateko eskumena.

SEIGARRENA.- Egiaztatu da faktura hauek egiterakoan elkarreak erabilitako irizpide ekonomikoa zerbitzu-kontratua indarrean zegoen epealdirako ezarritako berbera izan dela; hau da, zerbitzu-kontratuaren indarraldirako adostutako prezio berbera fakturatu dute hiru hilabeteetan emandako zerbitzuaren ordainketa eskatzerakoan.

ZAZPIGARRENA.- 2024SABI0012 espediente bidez kudeatzen ari den zerbitzu kontratua esleitu bitartean modalitate honetan eskainiko du EUSKO EKI S.L.ak bere zerbitzua.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau

EBAZTEN DU

LEHENA.- EUSKO EKI SL, B20537759, aurkeztutako bi faktura hauek onartzea eta ordaintzea:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
106	2024/12/27	2.828,38 €	Tolosako Liburutegian abenduaren 12tik 31ra laguntzaileen zerbitzuagatik.
107	2024/12/27	257,13	Tolosako Liburutegian abenduaren 26 eta 27 egunetan laguntzaileen zerbitzuagatik .



BIGARRENA.- Modalitate honetan emandako zerbitzuari dagozkion gainerako, aurrekontuak, eta fakturak ere onartzea eta ordaintzea, baldin eta baldintza berak mantentzen badira fakturretan, beti ere kontratu publiko berria esleitu eta indarrean sartzen den dataren aurreko egunera arteko epealdiari badagokio.

HIRUGARRENA.- Interesatua eta Kontuhartzailatza Saila jakinaraztea

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKU40aac0b8-22b5-4122-bdf2-fd78fcc47f1b

2024/1933 Dekretua: 2025/25 faktura zerrendak

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Kontuhartzaitza teknikariak egindako txostenean ondorengo hau zehaztu zuen:

AURREKARIAK

“Asociación Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa” elkarteak aurkeztutako ondorengo fakturak jaso dira, guztira 12.490,57 eurokoak, 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidaren kargura:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
018/2024	2024/02/28	852,45	Otsaileko bilketa zerbitzua
029/2024	2024/02/28	997,04	Hileko kuota finkoa: otsaila
044/2024	2024/04/04	997,04	Hileko kuota finkoa: martxo
040/2024	2024/04/30	1.342,41	Apirileko bilketa zerbitzua
059/2024	2024/04/30	997,04	Hileko kuota finkoa: apirila
050/2024	2024/05/31	1.653,65	Maiatzeko bilketa zerbitzua
074/2024	2024/05/31	997.04	Hileko kuota finkoa: maiatza
064/2024	2024/06/30	426.22	Ekaineko bilketa zerbitzua
089/2024	2024/06/30	997,04	Hileko kuota finkoa: ekaina
077/2024	2024/07/30	2.233,60	Uztaileko bilketa zerbitzua
104/2024	2024/07/31	997,04	Hileko kuota finkoa: uztaila.

Guztira: 12.490,57

Gastuak kontratu txiki moduan izapidetu dira.

OINARRI JURIDIKOAK

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, bere IV TITULUA: KONTUHARTZE-KONTROLA.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.
3. 2021/7/29 datako toki erakundearen osoko bilkuraren erabakia, aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea eta espedienteetan egiaztatu beharreko baldintzak onartzen dituena.

JAKINARAZTEN DUT

Lehen.- Obligazioen onarpena aurretiazko kontu-hartzearen menpe daude, abenduaren 27ko Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuaren 18. artikulua arabera.

Organo kontu-hartzaileak egiaztatu beharko du obligazioa onartzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen direla.

Bigarrena.- Kontu-hartzaile akzidentalak, espediente bereko 2024ko otsailaren 6ko fiskalizazio txostenean, adierazi zuen, aipatutako elkarteak aurkeztu zituen 2023 urteko irailetik abendura bitarteko animalien bilketa zerbitzuaren 4 fakturak ez zirela behar bezala izapidetu (2024FISK0002):

«...gastua kontratu txiki bidez izapidetu da, SAREKO aplikazioan egindako eskarien bidez. Baina, aurkeztutako faktura hauek, eta baita urtean zehar aurkeztu diren gainontzekoak ere, prestazio errepikakor baten ondorio dira, eta Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legearen 28.8 artikulua arabera, prestazio horiek ezingo dute urtebete baino gehiago iraun. Kontratu txiki baten bidez ezin bada gastu hau tramitatu, aldez aurretik fiskalizatu behar da.

«2.-Zerbitzu honi buruz 2023ko otsailaren 22an egindako fiskalizazio 39/2023 txostenean eta 2023ko martxoaren 1eko 2023/466 Alkatetza Dekretuan Idazkariak egindako eginbidean adierazten zen zerbitzu hau ezin zela kontratu txikien bidez tramitatu eta lizitazio prozedura hasi beharra zegoela. Zerbitzuaren lizitazioa abian



jartzeko denbora emate aldera, 2023an ez da txostenik egin "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak aurkeztutako fakturei buruz. Baina, egia esan, nahitaezko lege prozeduraren arabera izapidetzen ez den zerbitzu bat ematen jarraitzen dugu. Beraz, lizitazioa lehenbailehen martxan jartzea derrigorrezkoa da.»

Txostenaren emaitza erreparo etenarazlea izan zen.

Hirugarrena.- *Udalbatzak, 2024ko otsailaren 29an, Ohiko Osoko bilkuran, onartzea erabaki zuen "Asociación Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa" elkartearen kredituen judizioz kanpoko aitorpena. Erabaki honen bidez ordaindu ziren 2023 urteko irailetik abendura bitarteko fakturak.*

Laugarrena.- *"Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak animaliak biltzeko zerbitzuari dagozkion beste 11 faktura aurkeztu ditu eta horien gastuak zuzen izapidetu gabe jarraitzen du. Izan ere:*

- prestazioak errepikakorrak dira eta urtero behar berari erantzuten diote, kontratu txikien iraupena urtebetetik beherakoa denean, luzatzeko aukerarik gabe, 9/2017 Legearen 29.8 artikularen arabera.*

Espedientea legea jarraituz izapidetu ez denez, ulertu behar da ez dela egin eginkizun kontu-hartzailea, eta abenduaren 27ko Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuaren 28. artikulua aplikatu behar da. Honela dio artikulua honek:

"28. artikulua. Eginkizun kontu-hartzailea ez betetzea.

1. Foru dekretu honetan jasotakoaren arabera eginkizun kontu-hartzailea derrigorrezkoa izanik bete ez denean, ezin izango da ez obligazioa onartu, ez ordainketa izapidetu eta ez jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, harik eta ez-betetzea artikulua honetan jasotakoari jarraituz ezagutu eta konpondu arte.

2. Baldin eta espediente bat ezagutzean organo kontu-hartzaileak eginkizun kontuhartzailea bete ez dela erreparatzen badio, horren berri emango dio espedientea hasi duen agintariari eta, aldi berean, bere iritzia emango du proposamenaz, txosten hori jarduketari erantsita, betiere toki entitateko lehendakariak prozedurarekin eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketekin jarraitzea erabaki ahal izateko.



Baldin eta eginkizun kontu-hartzailea ez bada betetzen osoko bilkuraren eskumeneko obligazio edo gastuei dagokienez, toki entitateko lehendakariak osoko bilkuraren erabakiaren menpe jarriko du prozeduraren eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketetan jarraipena.

Txosten horrek ez du izango eginkizun kontu-hartzailearen ariketaren izaerarik, salbu eta eragozpena azaldu bada ordainketa aginduen jatorri diren egintzak fiskalizatu ez direnean. Txostena foru dekretu honetako 15. artikulua 6. apartatuan aipatutako zerrendan sartuko da, eta gutxienez alderdi hauek barnean hartuko ditu:

- a) Gastua xehetasunez deskribatzea. Hura identifikatzeko behar diren datu guztiak sartuko dira, eta gutxienez honako hauek: organo kudeatzailea, gastuaren xedea, zenbatekoa, izaera juridikoa, noiz egin den, aurrekontu kontzeptua eta zer ekitaldi ekonomikotara egotziko den.*
- b) Adieraztea zer kasutan ez den araudia bete, informatzen duen organo kontu-hartzailearen iritziz, derrigorrezko aurretiazko fiskalizazio edo kontu-hartzea egin gabe egin-tza eman zenean, urratutako legezko xedapenak espresuki aipatuta.*
- c) Egiaztatzea prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela. Horretarako, kontuan hartuko dira organo kudeatzaileak aurkeztutako balorazio eta frogagiriak, betiere organo horrek beharrezkoak diren aholku edo txosten teknikoak eskuratu behar izanik.*
- d) Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela gastua ordaintzeko.*
- e) Begiratzea aukera ote dagoen eta komeni ote den ordenamendua urratuta emandako egintzak berrikustea. Hori guztia egitea organo kontu-hartzaileari dagokio, betiere aintzat hartuta prestazioak egin diren, haiek zer izaera duten eta nola baloratzen diren, bai eta legea bete den ere. Horretarako, kontuan hartuko da, egintzaren berrikuspenaren emaitza gauzatzeko, kalte-galeren ordainketaren bidea erabiliko dela, betiere Administrazioa bidegabe aberastearen edo bere ardurapeko obligazioa ez betetzearen ondorioz berari dagokion ondare erantzunaren ondorioz. Hortaz, ekonomia prozesaleko arrazoiak direla eta, berrikuspen hori egiteko eskatzea bidezkoa litzateke bakarrik uste denean kalteordain horien zenbatekoa txikiagoa izango dela proposatzen dena baino.*

3. Biztanle kopuru handiko udalerrietan, obligazio eta gastuen inguruan esleituta dagoen eskumenaren arabera, osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak erabakiko du prozedurarekin eta bidezkoak diren gainerako jarduketekin jarraitu edo ez.



Ebazteko eskumena tokiko gobernu batzordearena denean, espedientea tokiko gobernu batzordeari bidaltzeko ardura izango da espedientearen izapideaz arduratzen den organoari dagokion edo organismo autonomoa edo, hala badagokio, partzuergoa adskribatuta duen arloko departamentu edo zinegotziaren organo titularrena, betiere eskumen hori eskuordetu ahal izan gabe.

4. *Osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak aldeko erabakia hartzen badute ere, egon daitezkeen erantzukizunak eskatu ahal izango dira.”*

Bosgarrena.- *Kontu-hartzailetzako eginkizuna nahitaezkoa izanda adierazitako espedientearen, eta gastua baimentzeko aurretiazko fasean eginkizun hori alde batera utzi denez, ezin izango da obligazioa onartu, ezta jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, ez-betetze hori ezagutu eta konpondu arte.*

Seigarrena.- *Eten egiten da, ekonomia eta finantza alderdietan, nahitaezko funtzio kontuhartzailea alde batera utzita emandako egintzaren eraginkortasuna.*

Zazpigarrena.- *32/2018 Foru Dekretuaren 28.2 artikulua aipatzen dituen alderdiei dagokienez:*

a. *Gastuaren deskribapen zehatza*

Ondorengo taulan xehetasunez deskribatzen da egindako gastua

<i>Faktura zk.</i>	<i>Fakturaren data</i>	<i>Zenbatekoa</i>	<i>Kontzeptua</i>
018/2024	2024/02/28	852,45	Otsaileko bilketa zerbitzua
029/2024	2024/02/28	997,04	Hileko kuota finkoa: otsaila
044/2024	2024/04/04	997,04	Hileko kuota finkoa: martxoa
040/2024	2024/04/30	1.342,41	Apirileko bilketa zerbitzua
059/2024	2024/04/30	997,04	Hileko kuota finkoa: apirila
050/2024	2024/05/31	1.653,65	Maiatzeko bilketa zerbitzua
074/2024	2024/05/31	997,04	Hileko kuota finkoa: maiatza
064/2024	2024/06/30	426,22	Ekaineko bilketa zerbitzua
089/2024	2024/06/30	997,04	Hileko kuota finkoa: ekaina
077/2024	2024/07/30	2.233,60	Uztaileko bilketa zerbitzua
104/2024	2024/07/31	997,04	Hileko kuota finkoa: uztaila.

Guztira: 12.490,57



b. Arauak ez betetzearen azalpena

Kontuhartzailletza honen iritziz, lehen identifikatutako gastuak txosten honen lehen jakinarazpenean eta eranskinean adierazten diren akatsak ditu.

c. Prestazioak egin direla eta prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela egiaztatzea

Saileko arduradunak txosten bat egin beharko du, egiaztatuz, prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela.

d. Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela

Gastuaren zenbatekoa ordaintzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa dago 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidan, lotura juridikoari dagokionez (AD2821/2024) elkarteak aurkeztutako hamaika fakturei dagokien gastua onartzeko. e) Egintzak berrikusteko aukera eta komenigarritasuna

Ordenamendua urratuz emandako egintzak berrikusteko aukerari eta komenigarritasunari dagokionez, aurreko c) puntuan aipatutako organo kudeatzaileak egiten duen txostenaren arabera izango da.

Saileko arduradunak adierazten badu dagozkion prestazioak egin direla eta merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola, kontuan hartu beharko da kalteordainaren zenbatekoa bat datorrela fakturaren edo gastuaren zenbatekoarekin eta, beraz, ez dela beharrezkoa ESKU57759879-2cd5-4242-8488-9ee7bf5ef557 egintza berrikusteko eskatzea.

Zortzigarrena.- Alkateari dagokio erabakitzea prozedurak, eta kasuan kasu dagozkion jarduketek eta erantzukizunek, jarraituko duten ala ez.

Bederatzigarrena.- Aurrekoari kalterik egin gabe, udalaren alde bidegabeko aberastea gertatu bada, eta sailaren arduradunak egiaztatzen badu prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela, egindako prestazioak "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkarteari ordaindu behar zaizkiola uste dut, kredituaren judizioz kanpoko aitorpen bat izapidetuz. Kreditu egokia eta nahikoa dagoenez, honen eskumena Alkatearena da.

Hamargarrena.- Txosten hau bidali behar zaio alkateari, jakinaren gainean egon dadin, eta organo kudeatzaileari, dagokion txostena aurkez dezan, prestazioen gauzatzeari buruz eta horien prezioa merkatuko prezioari egokitzen zaion ala ez adieraz.



Hamaikagarrena.-Txosten honetan aipatzen diren fakturez gain zerbitzua lizitatu bitartean udalak animalien bilketa zerbitzuaren faktura gehiago jasoko balitu, horietan ere eginkizun kontu-hartzailea ez betetze egoera legoke.

BIGARRENA.- Kontuhartzaileak eskatu bezala, udaltzainburuak igorritako txostenean zehazten du prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela.

Horiek horrela, alkate-udalburu honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- Txosten honetan aipatzen diren fakturaz gain zerbitzua lizitatu bitartean udalak animalien bilketa zerbitzuaren faktura gehiago jasotzen baditu, "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkarteari ordaintzea.

BIGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea interesdunari, Kontuhartzaileari eta Kontratazio Unitateari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.



Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

>> EGINBIDEA

Tolosako Udaleko idazkari akzidentalak eginbide hau egin du, honako hau jasota gera dadin:

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak hau zehazten du 70.3 artikuluan: "3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebearren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean: a) Oinarria kredituaren askieztasunean edo proposatutakoaren ezegokitasunean datzanean. b) Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean. c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean. d) Ingera obra, hornidura, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik sortzen denean." Halaber, artikuluko bereko 4. idatz-zatiak hau zehazten du: "Eragozpenak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, toki entitateko lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebazpen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu." Era berean, artikuluko bereko 6. eta 7. idatz-zatiek hau zehazten dute: "6. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio Udalbatzarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru sarreraren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe. Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai zerrendan. Toki entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du Udalbatzarrean edo organo baliokidean. 7. Kontu-hartzailetzako organoak, toki entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak eta Udalbatzarrak edo organo baliokideak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru sarreraren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, toki entitatearen justifikazio txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio."

Hortaz, idazkari akzidentala honek adierazi nahi du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera, beharrezkoa izango dela kontuhartzailetzako organoak txostena helaraztea Udalbatzarrari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan. Halaber, alkate-lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra alkate-lehendakariak eta Udalbatzak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/1516 Dekretua: 2025/26 faktura zerrendak

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

26. zenbaki duena, 242,25 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

26. zenbaki duena, 242,25 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztu, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Udal idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2025/1560 Dekretua: 2025/27 faktura zerrendak

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

27. zenbaki duena, 422.728,91 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

27. zenbaki duena, 422.728,91 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Udal idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:15ean.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IGBA0016-2025/06/03ko akta/2025/06/03ko akta ()